

“KARMEN'GO ARGIA”KO G. JAUREGIREN IDAZLANAK

ARGITARALDI HONEN GAINEN XEHETASUNAK

Argitaraldi honetara aita Gabirel Jauregi Uribarren karmeldarrak KARMEN'GO ARGIAN 1931tik 1936ra bitartean argitara eman zituen lanak azalduko dira. Idazlanak, osteraz, ez dira denboraren hurrenkeran argitaratuko, ezpada gaika. Ondokoak dira guk bereizi ditugun gaiak: izadi-iztia, kimia, pisia eta enparaukoak. Aita Gabirelek *izadi-izti* berba erabiltzen ez badu ere, bai *izadi*, bai *izti* erabiltzen ditu, eta gaur egun *natur zientzia* legeaz ezagun dugun *jakiniztia* ematen du aditzera.

Izadi-iztian, izadiko jazokun batzuk aztertzen ditu aita Gabirelek, baina izarrei ematen die garrantzi gehien eta hogeita hamalau idazlan egin zituen beraien inguruan.

Bestalde, zehaztasun batzuk egin behar dira argitaraldi hau burutzeko, ortografiaren alorrean, hartu diren erabaki batzuen gainean:

a) Dagoeneko erabili ez, baina aita Gabirelek idatzi zuen garaian txitean-pitean ageri ziren letra bi ditugu aitagai: *l* eta *r* *kakodunak*. Aita Gabirelek letrok toki guztietan erabiltzen zituen, hau da, bokalen artean (*ibilli*), kontsonanteen aurrean (*illgora*) eta berbaren amaieran (*gogorr*). Argitaraldi hau denaz bezanbatean, lehenengoa bakarrik zaindu dugu, eta besteak ezabatu egin ditugu. Hala ere, berba batzuen inguruan zehaztasun bat egin beharra dago: *kilometro* (12 bider ageri da), *kolore* eta *dindilizka* (2) hobetsi ditugu *killometro* (2), *kollore* (1) eta *dindillizka* (3) bustiak alde batera lagata. Horrezaz gainera, zaindu ditugun *l* eta *r* *kakodunak* hemen *ll* eta *rr* digramen bitartez azaleratu ditugula esan behar da. Berezia da *millue*, *milloi*, *miloi* eta *milloe*, non *ll* digramaren alde jo dugun eta gaur egun amaieran nagusitu diren bokalak aukeratu ditugun: *milloi*.

Bestalde *ñ* letrak bestelako arazoa azaltzen du, ze batzuetan berba amaierako *n* busti legeaz ageri da, beste batzuetan, osteraz, ez; hori dela eta, berba amaierako bustidura aditzera ematen duen *ñ* letra *n* bihurtzea erabaki dugu. Bestalde, kontsonanteen aurreko *ñ* ere *n* aldatu dugu. Azkenik, bokalen artekoari eutsi diogu, baldin eta erabilera oroko-

rreroa bazen, hala nola, *urrinen* (12) hobetsi dugu *urrinen* (3) baino lehen; alabaina bustidura batzuk ez ditugu islatu, esaterako, *minutu* (27 bider) hobetsi dugu, *miñuturen* (12) aldean.

Azkenik, *amaittu* bakarra azaltzen da, baina digrama hori bakundu dugu, testu osoan barrena azaltzen den *amaitu* aldaerara makurtu gara eta; gauza bera egin dugu *ittorekin*.

b) Berben itxura dela eta, hainbat arazo sortu da, ze berba batzuk modu askotara idatzi zituen, berbarako, *Euskal-Erri* (hamar bider), *Euzkel-erri* (behin), *Euskal Erri* (behin), *Euskel-Erri* (bi bider), *Euzkal-Erri* eta *Euskel-erri* (bi bider); orduan gehienetan ageri dena aldatu dugu hona. Antzeko zerbait jazotzen da *goiz*, *goz* eta *goix* berbekin, hirurak *goiz* aldaeraren bidez eman ditugu, ze bera 152 aldiz ageri den artean, *goz* lau bider, eta *goix* behin baino ageri ez baitira. Gauza bera egin dugu *anka* (2) eta *ainka* (26) aldaerekin, eta aldaera bustia aldatu dugu hona. Bestalde, *aurreagokoak* (1), *auragokoak* (1) eta *aurreragokoak* (1) aldaeren artean, hirugarrena hobetsi dugu. *Bestelan* (1), *bestela* (1) eta *bestelaz* (1) aldaeren artean, bigarrena aukeratu dugu, jatorrizko forma denez; eta berdin jokatu dugu *onela* (64) eta *onelan* (3), eta *urruti* eta *urrutiz* aldaerekin. *Erlamia* (25) aukeratu dugu, *erlamea* (2) eta *erlama* (2) aldaeren kalietan; eta *erle* (26) nahiago izan dugu, bi bider baino azaltzen ez den *erla* aldaera utziaz.

Arazo gehiago eman digute *egusenti* (bi bider), *egun senti* (behin), *egunzenti* (hiru bider) eta *egun zenti* (behin) aldaerek. Hemen *egun senti* aldaera aukeratu dugu, izan ere, ez dago erabateko nagusitasunik beraien artean, eta tradizioan errotuago dagoena aukeratu dugu.

Sakuto (1) eta *sakutu* (1) aldaerak azaltzen badira ere, guk bietan *sakuta* ipini dugu; horretarako *Autoritateen hiztegi*az baliatu gara; egin-eginean ere, aita Gabirelek *intxusa* sinonimoa ematen duenez, bide ematen digu ezarri beharreko forma *sakuta* dela erabakitzeke. Bestalde, ez da *sakuto* inon azaltzen, ez eta *sakutu* ere.

c) Oso latza izan da berben hasieretan y eta jdun formen artean aukeratzea. Alde batera, *NOR-NORI* paradigmetan, *jaku* (bederatzi bider), *jako* (hamabi bider) eta *jatzu* (behin); bestetik, *yaku* (hogeita hamalau bider), *yako* (hogeita hamazazpi aldiz) eta *yatzu* (bederatzi bider). Bestaldera, hasieran, ydun formak hobestekotan egon baginen ere, azkenean, jdun formak hobestea erabaki dugu, zergatik-eta adizkietan ez ezik, bestelako berbetan arakatu genuenean, bitasuna oso nabaria izateaz gainera, ugarixeago baitzeuden jdun berbak ydunak baino; egin-eginean ere, ia 40 berba idazten ditu j letrarekin (*jabe*, *jabetasun*, *jaboi*, *jada*, *jagi*, *jai*, *jaio*, *jakin*, *jakituria*, *jan*, *janari*, *jantzi*, *jarai*, *jarain*, *jaramon*, *jarraiki*, *jarraitu*, *jarri*, *jaso*, *Jasokunde*, *jatxi*, *jaun*, *Jaunartu*, *Jaungoikoa*, *jauntxo*, *jaurti*, *jausi*, *jayo*, *jayotza*, *jazo*, *jazoera*, *jazokun*, *jo*, *joan*, *jorralla*, *Jupiter...*), eta hogeita hamarretaz y letrarekin (*yabe*, *yagi*, *yagon*, *yai*, *yakin*, *yakingarriak*, *yakitun*, *yan*, *yankari*, *yantzi*, *yarain*, *yaramon*, *yardun*, *yarraitu*, *yaso*, *yasoera*, *yasoketa*, *yasokun*, *yasten*, *yatorri*, *yatxi*, *yatzi*, *yauna*, *yaupa*, *yaurti*, *yausi*, *yauskera*, *yayak*, *yazo*, *yo*, *yoan*, *Yupiter...*); hortaz, eta testuetan barrena erabateko irizpiderik ezin eman daitekeela kontutan hartuta, jdun formak hobetsi ditugu.

d) Arazo korapilatsua dugu *s*, *x* eta *z*, eta *tx*, *tz* eta *ts* alternantzian azaltzen dira; ondoko aldaeratarik letra beltz eta etzanez azalduko direnak aukeratu ditugu, parentesia-aren artean agerraldien kopurua ematen delarik: horretara, *a(d)izkide*; *arratsalde* (72) eta *arratzalde* (38); *arrizku* (3) eta *arrisku* (1); *asken* (5) eta *azken* (55); *aspi* eta *azpi*; *auso* (2), *auzo* (5) eta *ausuna* (1); *azko* (3) eta *asko* (50tsu); *azpaldi* (1) eta *aspaldi* (2); *atze* (7) eta *atse* (15); *azupri* (4) eta *atzupri* (1); *bakotz* (1) eta *bakotx* (2); *baster* (7) eta *bazter* (1); *batsuk* (8) eta *batzuk* (69); *bezanga* (1) eta *besanga* (5); *bistu* (1) eta *biztu* (beste guztietan); *busten*, *bustan* eta *buztan*; *bustar* (2) eta *buztar* (5); *buztin* (5) eta *bustin* (4); *deritzo* (1) eta *deritxo* (38); *ebiltzezan* (2), *ebiltzesan* (1) eta *ebiltzezan* (3); *eguratz* (5) eta *egurats* (4); ondoko aditzak: *entsun*, *entzun*; *erantsun*, *erantzun*; *erreskada* (4) eta *errezkada* (3); *esagutu* (4) eta *ezagutu* (15); *esar* eta *ezar*; *esker* (8) eta *ezker* (3); *eskero* (6) eta *ezkero* (47); *estarri* eta *eztarri*; *ezkuma* eta *eskuma*; *eskutau* (3) eta *ezkutau*; *estanda* (3) eta *eztanda* (1); *eutsen* (21) eta *eutzen* (1); *garbantso* (1), *garbantzo* (2) eta *garbantzu* (7); *gaste* (2) eta *gazte* (13); *gozari* (1), *gosari*; *goze* (2) eta *gose* (1); *gusti* (3) eta *guzti* (119); *iñotzan* (2) eta *iñotsan* (6); *irabasten* (1), *irabazten* (1) eta *irebaste* (1); *irriztu* (1) eta *irristu* (4); *isentadu* (1) eta *izentau* (beste guztietan); *izan* (177) eta *ixan* (2); *-kisun* (7) eta *-kizun* (3); *kozkor* (4) eta *koskor* (7); *lastan* (1) eta *laztan* (1); *laster* (1) eta *laster* (9); *mostu* (2) eta *moztu* (1); *nagusi* (2), *naguzi* (3), *nausi* (2) eta *nauzi* (2); *miragarrisko* (1) eta *miragarritzko* (1); *ordezkari* (2) eta *ordeskari* (5); *otsitu* (2) eta *otzitu* (3); *pixu* eta *pisu*; *Prantzi* (1), *Prantzia* (1) eta *Franzia* (1); *sarata* (5) eta *zarata* (1); *sorrotz* (1) eta *zorrotz* (5); *suge* (5) eta *zuge* (1); *sustrai* (5) eta *zustrai* (1); *-tse* eta *-tze* aditz-izenetan, *uts* (7) eta *utz* (1); *uzte* (1) eta *uste* (20); *zakon* (2) eta *sakon* (1); *zartu* eta *sartu*; *zear* (14), *sier* (2) eta *zier* (3); *zekula(ko)* (2) eta *sekula(ko)* (1); *zendor* (1) eta *sendor* (1); *zintso* (1) eta *zintzo* (3); *zu-gar*, *su-gar* eta *sugar*; *zustar* (1), *zuster* (1) eta *zuster* (3)... Nahastea izugarria da, ageri denez; horrenbestez, eta baterako zein besterako burubideak eman daitezkeenez gero, gaur egun arragotu diren aldaerei eutsi diegu argitalpen honetan. Horrezaz gainera, aldaera bakarrak *azkatasun*, *aztu*, *erakutzi*, *iruntzi*, *mesa*, *zaldi* eta *zorgin* izan arren, *guk askatasun*, *aztu*, *erakutsi*, *iruntsi*, *meza*, *saldea* eta *sorgin* aldatu ditugu hona.

e) Hilan izenak batzuetan letra larritz ageriko dira, eta beste batzuetan letra xehez; *guk guzti-guztiak* letra xehez emango ditugu, non eta puntuazio legeek beharrezko ez duten. Formaren aldetik, bost dira itxura ezberdinak azaltzen dituzten hilak: *zezella*, *zezeilla* eta *zezeila*; *epalla* eta *epailla*; *jorralla* eta *jorrailla*; *agostu*, *abostu* eta *agoztu*; eta *lotasilla* eta *lotazilla*. Bustidura egiteko, eta hil guztien erabateko nagusitasunaren aldetik epaituta, *i* bako formak aukeratu ditugu; bestalde, *agostu* aukeratu dugu, ze bizkaieraren ahoskerari hobeto dagokio, eta hiru bider ageri da zdun aldaeraren aldean, behin bakarrik ageri baita; azkenik, *lotasilla* hiru bider baino ez da ageri, eta beste guztietan *lotazilla* da erabiltzen den forma; hortaz, berau aukeratu dugu.

Bestelako arazoa da hilek *-a* itsatsia eroan behar duten ala ez erabakitzea; izan ere, 1931 eta 1932. urteetan zehar *il* aldaera erabiltzen den artean, 1993ko urtariletik atzera *illa* aldaera izango da nagusituko dena. Hilan izenak deklinatuera, bestalde, batzuetan *-a* itsatsia bailuen jokatzeko du, eta beste batzuetan bestela jokatzeko da. Argitalpen honetarako *-a* bakoak hobetsi ditugu.

f) Adizki *jokatu*etan, baldin eta ezezkoa bada perpausa, orduan aita Gabirelek ezezko adberbioa eta adizkia lotu eta gorketa fonetikoa islatzen du batzuetan (170), nahiz eta behin *ezgareala* azaldu gorketa egin barik, hamarretan bereiz idazten ditu adberbioa eta adizkia, berorietarik zortzitan bokalez hasten delarik adizkia; eta 5 bider marrarekin lotzen ditu idazkeran. Guk horiek guztiak euren horretan utzi ditugu.

g) Batzuetan arau-haustea ageri dira, eta orduan beste barik zuzendu egin ditugu, esaterako, "*IZARBEL (Planetas):*" en ordeztu, "*Izarbelak (planetas):*" eman dugu.

h) Beste arazo bat *ba* daroaten adizkiak dugu: baldintzazkoetan, berbarako, lau kasutan bereiz doa, berrogeitik gora kakoa daroate, eta hamalautan lotuta doa ondorik datorren adizkiarekin; aditza galdegaia denean, berriz, marra darabil aita Gabirelek. Guk argitalpen honetan ez dugu bereizketa hori aintzat hartu; hori ez ezik, gaur nagusitu den joerari iritzi diogu egokien; hortaz, *ba* partikula ondorik datorren adizkiarekin lotuta azalduko dugu.

i) Batzuetan, gutxitan egia esan, bokalen artean *d*, *g* eta *r* kontsonantea galtzen da; orduan, guk kontsonante hori berreskuratu egin dugu: *aizkide* > *adiskide*; *ebai* > *ebagi*; *edonoi* > *edonori*; *euzki* > *eguzki*; *arduraik* > *ardurarik*; *-aik* (2) > *-arik* (56); *leor* (1) > *legor* (9); *muarri* > *mugarri*; *nausi* > *nagusi*. *Isentadu* eta *gertatu* aditzen aldamenean *izentau* gisakoak ageri dira. Azken aldaera honek bizkaierazko ezaugarria ematen duelarik, eta askozaz ugariago ageri denez beste aldaerak baino, bere horretan utzi ditugu.

j) Bokalen itxidura: jazokun fonologiko hau sarritan ikus daiteke aita Gabirelen lanetan. Maizenik ageri den itxidura honakoa da: *a* > *e*; *e* > *i*; *o* > *u*; *ea* > *ia* eta *ie*; *oa* > *ue*; eta *oe* > *ue*. Berbarako, inoiz bitasuna azaltzen zaigu: *auspu* (1) eta *auspo* (2); *bat-batean*, *bapatian* eta *bapatien*; *bear* (133), *biar* (17) eta *bier* (4); *beso* (8) eta *besu* (1); *erlemando* (16) eta *erlemandu* (2); *diralakuen* eta *diralakoan*; *eruan* (1) eta *eroan* (11); *eztau* eta *eztauz*, eta *eztago* eta *eztagoz*; *ikeragarritzko* (2) eta *ikaragarritzko* (4); *iperralde* (12) eta *iper alde* (3) batetik, eta *iparralde* (6), *ipar-alde* (2) eta *ipar alde* (2) bestetik; *irabasten* (1), *irabazten* (1) eta *irebasten* (1); *iregar* (5) eta *iragar* (21); *irekin* (13) eta *irakin* (4); *juen* (1) eta *joan* (24); *karburo* (1) eta *karburu* (3); *kristal* (3) eta *kristel* (4); *orrue* eta *orroe*; *tantai* (2) eta *tentai* (2); *tubo* (1) eta *tubu* (1); *salto* (6) eta *salto* (4); *urkamendi*, *urkatu* eta *urkemendi* (6); *zear* (14), *sier* (2) eta *zier* (3); *zustar* (1), *zuzter* (1) eta *zuster* (3). Inoiz ere hirutasuna azaltzen da: *doa* (51), *due* (1) eta *dua* (1). Argitaraldi honetara itxidurarik gabeko aldaerak hobetsi ditugu. Gauza bera egin dugu genitibo edutezkoaren eta datiboaren kasu batzuekin: *umiei* eta *umeei*; *gazteen* eta *gastien* eta abar.

k) Bokalen irekidurari dagokionez, *a* > *e*: *garri* (7) eta *gerri* (20); *erle* (26) eta *erla* (2)... Kasu honetan ere, irekidura kontutan hartu barik, jatorrizko aldaerari eutsi diogu.

l) Bokalen artean inoiz *y* eta *j* letrak azaltzen dira, izan ere, fonetikaren eragina ere islatu nahi da. Hala ere, ez da beti horretara gertatzen, eta bitasuna dugu hemen nagusi berriz ere: *biotz* (5) eta *bijotz* (5); *erijotza* (1) eta *eriotza* (1); *menpeyan* (3) eta *menpean* (1); *orijo* (7) eta *orio* (19); *Santiago* (2) eta *Santijago* (5)... Halaber, bokalen artean iren

ordez, y azaltzen da sarritan, eta esan liteke ez dagoela irizpide finkorik biak erabiltzeko, hortaz, biak aldaera batera bildu ditugu, lehenengo formak hobetsiz: *anaia, kataia, sus-traia, zelaia, elizelaia, saia, argizaiazko, ingikaia, ikatzkaia, urgaia, bardinkaia, ordeia* eta *odeia*; eta ondokoak moldatu ditugu besteen erara: *jayak, elaya, zelaya, tantaya, sus-traya, garaya, maya, ibaya, Bizkaya, Arkaya, bazkaya...*

Bestalde, txistukarien eraginez i erasten da batzuetan eta beste batzuetan ez. Guk aldaera idunak hobetsi ditugu: *eliz* (2), *eleiz* (24) eta *elex* (1); *iñoz* (4) eta *iñoiz* (13); eta *ixotu* (1) eta *ixiotu* (9).

m) Hitz elkarteetan, *tz* gehi *k* elkartzen direnean, batzuetan *tzk* ageri da, eta bestee-tan *zk*. Guk bakuntasunaren alde jo dugu: *ikazkai* nahiago izan dugu *ikatzkai* aldaeraren aurretik, eta *zugazpe* hobetsi dugu *zugatzperen* kaltetan. Deklinabideko adlatibo norantz-koan ere horretara jotzen du eta *iparralderuntzko* gisakoak azaltzen dira; kasu honetan ere, bakuntasunaren alde egin dugu.

n) Hitz elkarteak eratueran, egundoko arazoak sortzen dira, ze hitz elkarte bera marrarekin, loturik zein bereiz idatzita ikusten dugu: *Artz-aundi, Artzaundi* eta *Artz Aundi*; *Artz-txiki, Artztxiki* eta *Artz Txiki*; *auts kolore* (11), *autskolore* (1) eta *auts-kolore* (1); *egoalde* (16), *ego-alde* (1) eta *ego alde* (3); *erle-langille* (1), *erle langille* (9) eta *erle -langille* (4); *iperralde* (12), *ipar-alde* (2), *iparralde* (6), *iper alde* (3) eta *ipar alde* (2); *izar baltza* (2), *izarbeltz* (2), *izarbaltz* (3), eta *izar-beltz* (1).

Hirutasun horren aldean, bitasunak ere ugariak dira. Batzuetan bereiz eta marrare-kin: *argi lurrun* (1) eta *argi-lurrun* (12); *auzo-buru* (2) *auzo buru* (1); *beren-egun* (5) / *goren-egun* (1) eta *beren egun* (54) / *goren egun* (18), *gaiñ gañean* (1), *gain-gañean* (1), *gan-ganian* (1) eta *gan-gañean* (4); *kastillo etxe* (1) eta *kastillo-etxe* (1); *oxin-iturri* (1) eta *oxin iturri* (1); *sarri askotan* (3) eta *sarri-askotan* (1); *su bizi* (6) eta *su-bizi* (1); *zaldi-indar* (1) eta *zaldi indar* (1); *zer ikusi* (5) eta *zer-ikusi* (2). Beste batzuetan, aldiz, loturik eta marrarekin: *azalodi* (2) eta *azal-odi* (2). Bestalde, baditugu loturik eta bereiz azaltzen diren aldaerak ere: *eleizinguru* (1) eta *eleiz inguru* (1); *gatzkare* (1) eta *gatz kare* (1); *izar bel* (1) eta *izarbel* (1); *onen beste* (1) eta *onenbeste* (1); *uda barri* (1) eta *udaba-rrri* (12)... Inoiz loturik eta bereiz idazten direnetarik, loturik agertzen direnetan hitz elkar-tearen lehen osagaiaren azken bokalean aldaketak ageri dira, hala nola, *erlepillo* (2), *erla-pillo* (1) eta *erle pillo* (3); honetan ere, guk lehenengo aldaerak nahiago izan ditugu.

Hitz elkarteak berba bakarra ematen duenean, arazo batzuk azaltzen dira hitz bien loturan jazotzen diren aldaketak; arazo honen inguruan erabili dugun irizpidea erabilera bera izan da besterik ezean, horrenbestez, gehien erabilitakoak hobetsi ditugu: *bazkaltor-du* (1) eta *bazkaitordu* (2); *erlategi* (2) eta *erletegi* (1); *goialde* (1) eta *goikalde* (15)...

Hargiaren aldiekin berdin egin dugu, eta lotuta idazten diren formak hobetsi ditugu besteen kaltetan, ze askozaz ugariagoak dira.

o) Oraingoan -a itsatsiaren arazoa aztertu behar dugu; oso zalantzatsu azaltzen da aita Gabirel gai honetan, horretara, *antxiñeko* (1) eta *antxiñako* (10); *erleuntz* (15) eta *erleuntza* (1); *ezkumeko* eta *eskumako*; *gauz* (1) eta *gauza* (beste guztietan)... Horrela-

koetan erabilerari eman diogu lehenetasuna, beti ere, erabilerari paterkatsua bada, gaua egun gehien erabiltzen dena hobetsi dugu, goiko adibideetan azaltzen denez.

p) Izen berezi batzuen inguruko arazoak: 1) **Artz Aundi** erabiltzen da gehienbat, eta aldaera hori aukeratu dugu *Osa Mayor* adierazteko, behin bakarrik azaltzen den *Artz Nagusiren* kaltetan; Kaxiope hobetsi dugu, *Casiopea* eta *Kasiopea* baino lehen... 2) *Inglaterra* (1) barik, *Inglatierra* (1) nahiago izan dugu. Eta 3) *Prantzi*, *Franzia* eta **Prantzia** aldaeren arten, hirugarrenaren alde egin dugu, *pdun* aldaera nagusi delako eta *-a* itsatsia duelako.

q) Aditz trinko batzuen aldaerak direla-eta estuasun latza sortu zaigu, ze herriaren ebakeraren eraginpeko aldaerak ez ezik, aldaera normalduak ere ikusten ditugu; aukera gaitza bada ere, herri kutsudun formak alde batera lagata, euskara idatzian nagusitu direnak hobetsi ditugu, nahiz eta herri kutsukoak ugariagoak izan; horrenbestez, *dabiz* (2), *dabilz* (1) eta ***dabiltz*** (5); *dagon* (13) eta ***dagoan*** (2); ***dauala(ko)*** (2) eta *daula(ko)* (3); *daue(z)* (8) eta ***dabe(z)*** (115); *dauzan* (3) eta ***dauazan*** (1); *diñon* (13); eta *euen* (1), ***eben*** (41) eta *ebien* (2).

Puntuazioari dagokionez, ondokoak zehaztu behar dira:

a) Moldiztuts legez har daitezkeenak, barbarako, puntu eta komaren ostean letra larria ageri bada, guk hori letra xehe bihurtu dugu, eta alderantziz. Hala ere, berak letra larria nahita erabili duela begitandu zaigunean, guk bere horretan utzi dugu bera.

b) Bi puntuen ostean, berak bitara erabiltzen du, alegia, batzuetan letra larria, eta beste batzuetan xehea. Horrelakoetan letra xehera ekarri ditugu guztiak. Hala eta guztiz ere, aitamena direnean, letra larriari heldu diogu.

c) Puntu etenen edo hiru puntuen ostean, batzuetan koma ageri da, eta beste batzuetan ez; guk bi-biak koma barik aldatu ditugu hona.

d) Hainbat lekutan, moldiztutsak arau-hauste edo solezismo bihurtu dira; horrelakoetan, beste barik zuzendu egin ditugu okerrak, barbarako “B begi[a] or bere azalpea agiri dabela”, non taketen arteko bokala guk erantsi baitugu.

e) Laburdurak direla eta, ondokoa zehaztu behar da: berak *Km.* eta *Kms.* laburdurak erabiltzen ditu; edozelan ere, guk horrelakoetan biak ikur bihurtu ditugu: *km* puntu barik, nazioarteko araua denez.

f) Kakotx bakanaren arazoa ere korapilatsu azaldu zaigu, ezik izen berezietan bada-rabil ere, hainbatetan ez du horrelakorik ipintzen; hala eta guztiz ere, joera nabarmena da izen berezietan kakotx bakana ipintzearena; hortaz, falta direnetan ipini egin dugu: *Andra Mari'en* (1), ***Andra Mari'ren*** (16) eta *Andra Mariruntz* (6); *aramayotarrak* (3) eta ***Aramayo'tarrak*** (6); *Santiago kakotx* bakanduna bost bider azaltzen da eta bi bider kakotx barik. Izen arruntekin, oster, kakotx bakana kendu egin dugu.

g) Kakotx bakanaren eta marraren arteko korapiloa: egundoko nahastea dago, eta *18-an* eta gisa horretakoak ageri badira ere, askozaz ugariagoak dira kakotx bakana da-roaten aldaerak; hortaz, guzti-guztiak horretara ekarri ditugu.

Beste nahaste bat dugu egunen, eta egunen eta orduen deklinabide kasuetako markak jarrieran; horretara, bada, guzti-guztiak bateratu ditugu, fonetikaren eragina kontutan hartuz eta deklinabidea zenbakien arabera lotuz.

Tipografiaren inguruan ere, letra larriak neurritz gain erabiltzen ziren garaiko testuak direnez gero, letra larriak ohi baino sarriago ageri dira; horrelakoetan, letra larria letra xehe bihurtu dugu, baina etzan eta beltxaren ezaugarriak emanaz.

Azkenik, argitaraldi honetan ageri diren oharrek bi motatakoak ditugu: aita Gabirelek berak testuetan barrena egindakoak, eta guk testuaren gainean azalpenak egiteko erabilitakoak. Lehenengoak ageri diren modu-moduan azalduko dira, eta gureak izarñoen bidez.

*Anjel Lobera eta Julen Urkiza
Etxebarrian eta Markinan, 1994ko azaroaren
15etik 1995eko urtarrilaren 19ra arte*